

TABAKALERA



ESPAZIO ETA
BALIABIDEEN
LAGAPEN DEIALDI
JARRAITUA

1. AURKEZPENA

KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA
—

CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA
—

INTERNATIONAL
CENTRE FOR
CONTEMPORARY
CULTURE
—

tabakalera.eus
—



Tabakalerak, arte-sorkuntzarako gunea den aldetik, lan espazioen-programa bat dauka, artista, sortzaile eta kultur eragileei babesa emateko. Programa honen helburu nagusia arte garaikidean lanean ari diren artista eta kultur eragileei arte-prozesuetan laguntzea da, bai kontzeptuarekin bai ekoizpenarekin.

Programa honek, Tabakalerak dituen beste batzuek bezala, espazio bat sortu nahi du eragileak eta haien proiektuak elkarren ondoan garatu daitezzen, egoiliarren eta eragile gonbidatuen artean lankidetzak sortzeko giroa eta aukera bultzatzeko helburuarekin.

2. XEDEA

Deialdi honen xedea da, arte garaikidearen esparruan lanean ari den artista eta kultur eragile orori, arte-proiektuak garatu ahal izateko lanerako espazioak eta baldintzak eskaintzea.

Deialdiak izaera desberdinetako proiektuak ditu helburu, honen arte-diziplina edo proiektua aurkitzen den fasea kontutan hartu gabe.

Deialdi ireki eta iraunkorra da, une bakoitzean eskainiko den laguntza kopurua Tabakalerak dauzkan konpromiso eta programak baldintzatuko du.

Hautatze batzordeak aurkeztutako proposamenen artetik deialdiaren baldintzei egoki erantzuten diotenak aukeratuko ditu.

3. MODALITATEAK

Honako deialdi honek behar ezberdinei erantzuten dieten hiru modalitate ezberdin ditu.

3.1. A modalitatea

Modalitate hau lan espazio edo estudio baten beharra dutenentzat dago pentsatua. Kontzeptualizazio fasean dauden proiektu artistikoei, ekoizpen fasea hastear daudenei edo jada garapenean dauden proiektuei zuzendua dago.

3.2. B modalitatea



Modalitate hau Tabakalerak dituen irudi zein soinu edizio kabinen erabilera behar duten sortzaileentzat da bai eta ikus-entzunezko proiektu bat garatu nahi dutenentzat edo garatzen ari direnentzat ere.

3.3. D modalitatea

Modalitate hau ikus-entzunezko materiala behar duten proiektuei dago zuzendua. Tabakalerak maileguan har daitekeen material zerrenda bat, ikus materialaren zerrenda i. eranskinean.

OHARRA: nahi adina modalitatetan, banaka edo batera, egin daiteke eskaera.

4. HAUTAGAIK

Deialdian parte hartu ahal izango dute artista eta kultur eragile guztiak; partzialki edo soilik arte garaikidearen sektorean proiektuak garatu nahi dituzten pertsona fisiko edo juridiko nazional edo atzerritarrek, dela eremu horretan jarduten dutelako, dela sektore horretan ibilbide profesionalari ekin nahi diotelako.

Halaber, bai pertsona fisiko edo juridiko izaera duten taldeak deialdira aurkeztu ahal izango dira, haien artean erlazio formalizaziorik eskatu gabe.

5. ZUZKIDURA

Egonaldia Tabakalerak Donostian dituen instalazioetan egingo da. Programak prestazio hauek eskaintzen ditu:

A modalitatea:

1. Lanerako espazioa, oinarriko altzariekin hornitua, argindar toma bat duena eta argiztatua. Lanerako gunek neurri ezberdineko espazio arkitektonikoak dira, proiektu ezberdinen beharrei erantzuteko aukera ematen dutenak. Bat edo bestea esleitzea Tabakaleraren erabakia izango da, aurkeztu den proiektuak eta espazioaren disponibilitateak baldintzatuko du erabaki hori.
2. Tabakalerako Medialaberako sarbidea.
3. Artisten Guneko eta Medialabeko baliabide teknikoak eta Tabakalerako lan-taldearen laguntza, behar eta aukeren arabera.

**B modalitatea:**

1. Tabakalerak irudia edo bideoa editatzeko hiru estudio, argazki estudio bat, soinua editatzeko kabina bat, platoa eta arte eszenikoak garatzeko espazioa dauzka.
2. Tabakalerako Medialaberako sarbidea.
3. Artisten Guneko eta Medialabeko baliabide teknikoak eta Tabakalerako lantaldearen laguntza, behar eta aukeren arabera.

D modalitatea:

Maileguan har daitekeen ikus-entzunezko materiala Tabakaleratik kanpo erabili daiteke, gehienez 15 egunez eta Espainiako Estatuaren barnean soilik. Ikus-entzunezko materialaren eskaera beste herrialdeetan erabiltzeko egiten bada, ez da mailegurik egingo, nahiz eta berezko aseguratzeari izan.

6. HAUTATZEKO BATZORDEA ETA IRIZPIDEAK

Proiektuak baloratzeko barne-batzorde bat dauka Tabakalerak. Batzorde hori maiztasunez bilduko da eta irizpide hauek hartuko ditu kontuan. Irizpide berberak erabiliko dira hiru modalitateen balorazioetan:

- Proiektuaren kalitatea eta sormena.
- Proiektuaren koherentzia eta bat etortzea hautagaiak/ek bere/n aldetik, nahiz taldeko gainerako kideekin batera, orain arte garatutako ibilbidearekin.
- Bideragarritasuna eta Tabakalerak dituen bitarteko eta lan-espazioetara egokitzea.
- Berrikuntza eta orijinaltasuna, eta Tabakaleraren jarduera eta testuinguruari egiten zaion ekarpena.
- Proiektuaren denborazkotasuna.
- Proiektuaren urgentzia.

7. ESPAZIOEN LAGAPEN EPEAK



A eta B modalitateen espazio lagapena 6 hilabetekoa izango da gehienez, eta denbora epe luzeena ezin izango da luzatu. D modalitateko ikus-entzunezko materialen mailegua 15 egunekoa izango da gehienez, bigarren aldiz berriro daitekeelarik, baina inoiz hilabete baino gehiagoko epean. Iraupen zehatza eta garapen datak sortzaile edo eragilearekin adostuko ditu Tabakalerako lan-taldeak eta Tabakalerak bere programa dela-eta hartutako konpromisoek baldintzatuko dute. Azken erabakia Tabakalerarena izango da.

8. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Deialdi ireki eta iraunkorra da. Izen-ematea, Tabakalerako webgunearen bitartez egin beharko da, online dagoen formularioa osatuz eta ondoko dokumentazioa atxikituz:

A modalitateari dagokionean:

PDF formatuko (gehienez 10 mega) dokumentu bat, honako datu hauekin:

1. Harremanetan jartzeko datuak: izena, abizenak, helbidea, e-maila, harremanetarako telefono-zenbakia, jaioteguna. Hautatutako proiektuaren ordezkari bakarra izendatuko da solaskide izateko.
2. Proiektuaren deskribapena eta hautagaiak zergatik egin nahi duten proiektuaren fase hori Tabakaleran; halaber, egonaldiaren iraupena ere adierazi beharko da, eta hautagaiak noiz duen egoiliar izateko aukera, betiere deialdiaren arabera (gutxienez 500 hitz, gehienez 1000).
3. Proiektua garatu ahal izateko beharrian espazialak eta teknikoak.
4. Egoiliar den aldirako aurreikusitako lan-egutegia.
5. Proiektua azaltzeko lagungarri den material grafikoa edo bestelakoa.
6. CVa eta biografia edo historia laburra (gehienez 500 hitz).

B modalitateari dagokionean:

PDF formatuko (gehienez 10 mega) dokumentu bat, honako datu hauekin:

1. Harremanetan jartzeko datuak: izena, abizenak, helbidea, e-maila, harremanetarako telefono-zenbakia, jaioteguna. Hautatutako proiektuaren ordezkari bakarra izendatuko da solaskide izateko.
2. Proiektuaren deskribapena.
3. Ze edizio-kabina mota erabili nahi den eta erabilpenaren epea.
4. CVa eta biografia edo historia laburra (gehienez 500 hitz).



D modalitateari dagokionean:

PDF formatuko (gehienez 10 mega) dokumentu bat, honako datu hauekin:

1. Harremanetan jartzeko datuak: izena, abizenak, helbidea, e-maila, harremanetarako telefono-zenbakia, jaioteguna. Hautatutako proiektuaren ordezkari bakarra izendatuko da solaskide izateko.
2. Proiektuaren deskribapena.
3. Lagapenean eskatu nahi den ikus-entzunezko materialaren zerrenda.
4. Materiala lagapenean hartu nahi den epea.
5. CVA eta biografia edo historia laburra (gehienez 500 hitz).

9. JABETZA INTELEKTUALA

Hautagai edo parte-hartzaile eta hautatutako onuradun guztiek bermatuko dute, bai (i) eskaeraren alorrean, bai (ii) oinarri hauen xede diren baliabideak erabiltzen dituen proiektua gauzatu bitartean Tabakalerari ematen dioten dokumentazio grafikoa, testuala edota ikus-entzunezkoa jatorrizkoa dela eta ez duela hirugarrenen jabetza eskubiderik urratzen. Ondorioz, Tabakaleraren aurrean edo haren hirugarren kolaboratzaileen aurrean erantzungo dute, material horien inguruan hirugarrenek jabetza intelektualaren harira erreklamazioaren bat aurkeztuz gero; gainera, kalte-ordaina eman beharko diete entitate horiei, adierazitako kontzeptuekin zerikusia duten erreklamazioek sor diezazkieten kalte eta galera guztiengatik.

Oinarri hauek onartzean, onuradunek baimena ematen diote Tabakalerari edozein euskarritan erabiltzeko aurkeztutako dokumentazio grafikoa, testuala edo ikus-entzunezkoa, oinarri hauen xede diren laguntzak hedatzeko eta laguntza horiek jasotzen dituen proiektua exekutatzeke xede bakarrarekin

Aurreko guztiak ez die kalterik egingo egile-eskubide moralei eta dokumentazio grafikoaren, testualaren edota ikus-entzunezkoaren gaineko jabetza intelektualaren ondare-izaerako eskubide guztien titulartasunari. Dokumentazio horiek onuradunenak izaten jarraituko dute.

10. DATU PERTSONALEN BABESA

Hautagai edo parte-hartzaileei jakinarazten zaie oinarri hauek onartzearekin batera baimena ematen diotela Tabakalerari eskaera aurkezteko unean eta oinarri hauen xede diren baliabideekin lagundutako proiektua gauzatzean emandako datu pertsonalak tratatzeko, baldin eta hautatuak izaten badira. Tratamendu



horren xedea izango da eskaera izapidetu eta kudeatzea, baita esleitzen diren laguntzak baliatzea, eta, gero, laguntza horiek jasotzen dituen proiektua hedatzea.

Datu pertsonal horiek erakunde eta organismo publikoei jakinaraziko zaizkie, baldin eta horretarako betebeharrak legala baldin badago. Halaber, jarraian datorren 11. klausulan xedatutakoa betez, laguntza jaso duten onuradunen irudia eta izena hirugarrenei jakinarazi ahal izango zaizkie Tabakalerak oinarri hauen xede diren laguntzak hedatzeko eta haiekin lagundutako proiektuak gauzatzeko erabiliko dituen jakinarazpen-sistemen bidez, edozein euskarritan.

Testuinguru horretan, adierazten da datu pertsonal horiek aurkeztea beharrezkoa dela; izan ere, datu horiek ez badira aurkezten, ezin izango dira kontuan hartu laguntzaren eskaera eta deialdiako parte-hartzea.

Hautagaien edo parte-hartzaileen datu pertsonalak gorde egingo dira haien proposamena baloratzeko eta, hala badagokio, laguntzak emateko eta baliatzeko kudeaketa egiteko behar-beharrezkoa den denboran, bai eta Tabakaleraren legezko betebeharrak betetzeko kontuan hartu beharreko kontserbazio-epe gehigarrian ere.

Edonola ere, hautagaiei edo parte-hartzaileei eta hautatutako onuradunei jakinarazten zaie honako eskubide hauek dituztela: (i) euren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatuzko, datu horien tratamendua mugatzeko, datuen eramangarritasuna eskatzeko eta tratamenduari uko egiteko. Horretarako, pgaraikideak@tabakalera.eus helbide elektronikora bidalitako eskaera egin beharko dute; (ii) Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren edo beste edozein kontrol-agintaritzaren eskudunen aurrean erreklamazio bat aurkezteko eskubidea, bereziki euren eskubideak baliatzean gogobeteta geratu ez badira.

11. IRUDI-ESKUBIDEAK

Oinarri hauek onartzearekin batera, hautatutako onuradunek baimena ematen diote Tabakalerari honako hauetarako: (i) baliabide tekniko egokien bidez haien irudia erregistratzeko (argazkiak, bideoak, etab.); (ii) irudi horiek eta izena eremuak-en webgunean eta beste edozein euskarritan, bai fisikoa eta bai elektronikoa, erabili eta erreproduzitzeko, bere kontrolpean edo hirugarren laguntzaileen kontrolpean. Horren xede bakarra izango da oinarri hauen xede diren laguntzak hedatzea eta haiekin lagundutako proiektuak exekutatzeko. Baimen hori ezeztagarria da.

TABAKALERA



12. OINARRIAK ONARTZEA

Deialdian parte hartzeak deialdiaren oinarri hauek onartzea dakar.

Info +:

pgaraikideak@tabakalera.eus

943011311

www.tabakalera.eus

KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA

INTERNATIONAL
CENTRE FOR
CONTEMPORARY
CULTURE

tabakalera.eus

1 ERANSKINA

AUDIO-MATERIALA			
Erref	Izena	Deskribapena	Kopurua
A1	Hari gabeko Sennheiser EX 100 ENG sistema	Petaka eta hari gabeko mikrofonoa.	4
A2	Aurretiko Sound Devices USBPre 2	XLR/TRS sarrerako 2 kanaleko audio-interfazea, XLR irteerako 2 kanalekoa.	1
A3	SOUND DEVICES 633 grabagailu eramangarria	Audio-grabagailu/nahasgailu eramangarria. 3 sarrera XLR/Linea. Phantom elikadura.	2
A4	Zoom H-4N grabagailua + Elikagailua	Grabazioa SD txartelean, phantom elikaduradun 2 XLR sarrera.	2
A5	Zoom H-6 grabagailua	Grabazioa SD/SDHC txartelean mic/linea-ko 4 sarrera. XY mikrofonoa.	2
A6	Rode pertika	Kanoi-mikrofonorako pertika. 84 cm-3 m.	2
A7	König&Meyer 27105 mikrofono-oina	900 mm-1600 mm mikrofono-oina.	6
A8	Rode NTG 3 mikrofonoa	Kondentsadore superkardiodeko mikrofonoa.	3
A9	Korg Kaoss Pad 3	DJ efektuko pad-a, USB ataka, 12 efektu-programa, ukipen-kontrolagailua.	1
A10	Haizetik babesteko Rode Blimp	Rode NTG-1, NTG-2, NTG-3 eta beste mikrofono batzuetarako haizetik babesteko pantaila.	1
A11	Haizetik babesteko Rycote Baby Bag Gag 21MM	Haizetik babesteko sareta biribila diafragma txikiko mikrofonoetarako, 21 mm-ko diametroa.	2
A12	Haizetik babesteko Rycote Baby Bag Gag Wind Screen	Haizetik babesteko ilezko pantaila Baby Gag saski guztietarako.	2
A14	Rycote Soft Grip Extension heldulekua	Luzatzeko heldulekua.	2
A16	Samson 8Kit Drumset mikrofonoa	Bateriarako 8 mikrofonoko seta.	1
A17	Schoeps UMS 20 mikrofono-barra	Bi mikrofonotarako barra-euskarria.	1
A18	Schoeps CMC-621 Set mikrofonoa	2 aurreanplifikadore Schoeps CMC 6 + 2 kapsula MK 21 kardiode zabal.	1
A19	Audiotechnica BP4025 mikrofonoa	X/Y stereo kondentsadore-mikrofonoa.	1
A20	Rode NT2-A mikrofonoa	Noranzko doigarria duen kondentsadore-mikrofonoa	1
A21	Rode NT5 mikrofonoa	Kondentsadore kardiodeko mikrofonoa.	2
A22	Rode SMR Antipop	Rode NT1 mikrofonoaren antipop armazoia	1
A23	Shure SM58 mikrofonoa	Mikrofono kardiodea	1
A25	AKG K-712 Pro aurikularrak	Aurikular dinamiko irekiak. 105dB.	2
A26	Sennheiser 380 Pro aurikularrak + Egokigailua	Aurikular dinamiko itxiak. 104dB.	2
A27	HP Ordenagailuko bozgorailuak	HP 2.0. Speaker System S5000	3

BIDEO-MATERIALA			
Erref	Izena	Deskribapena	Kopurua
V2	Sony Handycam FDR-AX33 kamera	Esku-kamera. 4K grabazioa. 2,6 MP. + Bateria + Kargagailua	1
V3	Canon EOS 60D kamera	APS-C sentsoredun reflex kamera + Bateria	1
V4	Canon EOS 5D Mark III kamera	Formatu osoko sentsoredun reflex kamera. 22,3 MP. Bateria + Kargagailua	1
V5	Canon EOS 7D Mark II kamera	CMOS APS-C sentsoredun reflex kamera. 18 MP. Bateria + Kargagailua	2
V6	Canon EF 24mm f/1,4 II USM objektiboa	Canon markako reflex kamerarako objektibo angeluhandia.	2
V7	Canon EF 50mm f/1,2L USM objektiboa	Canon markako reflex kamerarako argi-objektibo finkoa.	4
V8	Canon EF 24-105mm f/4L IS USM objektiboa	Canon markako reflex kamerarako modu orotarako objektiboa	4
V9	Canon EF 70-300mm f/4-5,6 IS USM objektiboa	Canon markako reflex kamerarako teleobjektiboa.	2
V10	Flash Canon Speedlite 430 EX II	Reflex kamerarako flash-a. 14 mm-ko difusorea.	1
V11	Canon Ixus 165 kamera	Kamera digital trinkoa. 20MP. HD bideoen grabazioa.	1
V13	Blackmagic Pocket 4K	4K bideokamera arina, HDR mikro sentsore lau heren	1
V14	BlackMagic URSA Mini 4K PL	Kamera zinematografikoa Super 35 4K sentsorearekin. 60 fps grabazioa. Bateragarria Carl Zeiss lenteekin + Bateria + Kargagailua.	1
V15	BlackMagic URSA Mini 4K EF	Kamera zinematografikoa Super 35 4K sentsorearekin. 60 fps grabazioa. Bateragarria Canon lenteekin + Bateria + Kargagailua.	1
V16	BlackMagic URSA Mini Shoulder Kit	Blackmagic URSA Mini 4K kamerarako sorbaldako euskarria	2
V17	Blackmagic URSA Viewfinder	Ursa Mini kameretarako begi-bisorea	1
V18	Manfrotto Compact Action tripodea	Argazki-kamerarako tripodea	1
V19	Vanguard Alta 263AP tripodea	Argazki-kamerarako tripodea	2
V20	Benro H10 tripodea	P2 kamerarako tripodea	2
V21	Led Philips panela	Selecon Studio panel led luminaire	4
V22	Manfrotto 604 BSM Mini Stand	Philips markako led panelerako tripodea	4

1 ERANSKINA

V23	Carl Zeiss Super Speed 35 PL objektiboa	BlackMagic kamerarako full frame objektiboa. Irekidura T.1.5, 35 mm	1
V24	Carl Zeiss Super Speed 50 PL objektiboa	BlackMagic kamerarako full frame objektiboa. Irekidura T.1.5, 50 mm	1
V25	Carl Zeiss Super Speed 85 PL objektiboa	BlackMagic kamerarako full frame objektiboa. Irekidura T.1.5, 85 mm	1
V32	NEC 23" pantaila	PC 23"rako pantaila Bereizmena 1920x1080	2
V34	Manfrotto MT190XPRO3 + MVH 502 AH tripodea	Aluminiozko tripodea 3 sekzio + errotula arina oinarri lauarekin	1
V35	DJI Ronin-S	3 ardatzeko gimbal-a, 3,6 kg-rainoko kameratarako	1
V36	Feelworld FW568-EU	DSLR o Evil. 5". 1920x1080, Peakin Focus Asist-erako eremu-monitoreia	2
V37	Neewer + Softbox argizatze-packa	2 led foku + tripode + Softbox-ez osatutako packa. Kanpoan erabiltzeko 2 bateria ditu	1
V38	Proiektzio-pantaila eramangarria		1

OSAGARRIAK			
Erref	Izena	Deskribapena	Kopurua
AC1	Cfast txartela	Blackmagic 128 Gb-rako Cfast txartela	2
AC2	Cfast txartelen irakurgailua	Cfast txartelen irakurgailua	1
AC3	5D/7D bateriak	Canon 5D edo 7D-rako aparteko bateriak	2
AC4	SD 8 Gb txartela	SD 8 Gb txartela	2
AC5	SD 16 Gb txartela	SD 16 Gb txartela	2
AC6	SD 32 Gb txartela	SD 32 Gb txartela	2
AC7	SD 64 Gb txartela	SD 64 Gb txartela	6
AC8	Zoom tripodea	Zoom grabagailurako tripodea	2
AC9	Mikrorako mahaiko oinarria	Mikrorako mahaiko oinarria	3
AC10	SD txartelen irakurgailua	SD txartelen irakurgailua	1
AC11	Argi-difusorea	Philips Selecon led paneletarako difusoreak	4
AC12	Led fokuen palak	Philips Selecon led paneletarako norabidea doitzeko palak	4
AC14	Metabones Pocket a EF egokigailua	Blackmagic Pocket 4Krao EF lenteen egokigailua	1
AC15	Metabones Pocket a PL egokigailua	Blackmagic Pocket 4Krao PL lenteen egokigailua	1
AC16	Cage Smallrig SM2203 BM Pocket	Blackmagic Pocket 4Krao kaiola	1
AC17	Smallrig 1859 soporte mic	Kamera-kanoiarene mikrofonoaren euskarria. 4 puntuko esekidura	1
AC18	BM Pocket garraio-poltsa	Goitik irekitzen den garraio poltsa ertaina	1
AC19	SSD 2TB disko gogorra	Disko gogorra BM Pocket 4K, SSD 2TB, USB-C. 540Mb/s R-Werako	1
AC20	HDMI kablea		4
AC22	Canon kablea		5